



GEHIGARRI BEREZIA: IRITZIAK • HISTORIA • ARGAZKIAK

Arrasate

1998ko
Martxoak 18
400. zenb.

P R E S S

400.


zenbakia

Mila esker Arrasate!

IKUSPEGIA: JOXERRA AGIRREURRETA • KIROLAK: MAIALEN ARANEGI
IRITZIA: JOSEBA UGALDE • ELKARRIZKETA: JUAN RAMON GARAI

**LOGELATAN
maisuk**

**Zapata
arratsaldeetan
zabalik!!**



**Eta orain
2. SOLAIRUA**

**Saloi eta sofa
erakusketa**

Etxe Mobil, Deba Garaian eta Behean zehar logela, sofa, egongela eta osagarriak errazago topatzeko saltokia. 48 urteko esperientzia. Hemengo profesionalak zuzendua. **BENETAN HARRIGARRIA!**

Araba Etorbidea, 5 (ESKATU Pabilioia, San Andres auzoa) Tel. / Faxes: 79 41 82

ARRASATE

Eskalerria

Pedro Mari Otaño bertsolarixek idatzi zittuen, zalantza barik, eskekuiei inoiz idatzi izen jation bertsorik ederrenak. Lehenengo bertsuek hauxe dixo: "Mutil koxkor bat itsu aurreko zuela aldamenian gizon burusoil, bizar zuri bat, bi makuluren gainean, kale ertzean ikusi nuen inora ezin joanean; ta bera nor zen jakin nahiean inguratu nintzanean, limosnatxo bat eskatu zidan Jainkoaren izenean".

Eskeko, behartsu, erromes, eskale, txiro, ateko..., eta nik eztakitt zenbat izen jarri izen dutzien aterik ate eskien ibili izen dien eta ondio dabitzen andra-gizonei. Sasoi baten ondo hartuek izeten zien danon etxietan. Limosnie emutie oin baino zabalduau euen. Eskekuiei limosnien truke errezetie eskaketan jaken. Errezatzaile onak izaten zien asko eta asko: ondo inddako errezeuekin



Joxerra Agirreurreta

soluen jenerue samurrau etorten zan ero bestela, horreik errezuok, gaiso euzenei osaketan lagunketan euztuen.

Besterik ezien, etxeko eskapeien, lolekuen eskeinttie eitten jation. Hortaikuek zien nire tio-tiak besoko ein zittuen Dimas eta Segundito. Nun ete dabit? Lehenau bixitetan etorten zien sarrisari. Eta denboralditxo bat agertu barik eitten auenien, hauxe entzuten geuen: "Jontxo aspalditxuen etxakuk Dimasoi ageri". Faltan botaten gittuen, geixenak etxeko eitten gittuen eta.

Euskal Herrixe eskalez betie euen hartan, eukenak gutxiau eukenai emun biher izeten utzen, eta ez bakarrik erlijñiuek ainketan euelako, gizalegez be halaxe toketan zalako. Otañon bertsuetan esaten dan moruen, inok eztau pentsetan holako egoera tristera ailegau

leikenik, baine, askotan bizitzan holako egoerak etorri eitten die.

Orduen eta gaur Euskalerrixe Eskalerrixe izen da beti. Egixe da herri hontako zati bat, Sarasuatarrek euren bertsuetan dixuen moduen, arrano herri harrue bihurtu jakule, baina bada beste herri bat, euskal tribukuok hain zuzen be, Miskito, Maputxe, Mahori, ero Txiapaseko indixo sentiruten dena. Eta zati honek osaketan dau *Eskalerrixa*.

Eskalerrixe die beraz, Aed, Arko, Txatxilipurdi, Argia, Aek, Egunkaria, bertsolari eta idazle elkarreak. Eta Eskalerrixe be badie, gure etxietan eskeko maitagarri hareik letxe etxeko ein dittuen presuen aldeko taldiek, emakumeen asanbladak, homosexual eta lesbianen taldiek, kultura elkartiek, sindikatuek eta hainbat eta hainbat halako.

Honeik die ba, eta ahaztu dittutan batzuk, jakina, gure Eskalerrixe eta nik eskaketan dot Jangoikuen izenien ez bada be, luzarohan bizi daittezela eta onartuek izen daittezela gure etxietan lenauko eskale hareik izan zien letxe: Gora Eskalerrixe!

"Eskekuiei limosnien truke errezetie eskaketan jaken"

400. zenbaki honetan

1998ko martxoaren 18an

Asteko agenda.....**4/5** Astearen errepassoa...**13** Txutxumutxuak.....**16/17**
Inkesta.....**9** Orain eta hemen **.14/15** Kirolak jokoan.....**20/23**

Ikuspegia
Joxerra Agirreurreta3
Euren ikuspegitik
Joseba Ugalde.....10
Aurrez aurre
Juan Ramon Garai18/19
Kirolaren txokoa
Maialen Aranegi.....20
400. zenbakia!
GEHIGARRI BEREZIA21/38

Bat, bi, hiru eta lau. Lau aldiz gaiditu du Arrasate Pressek ehungarren zenbakia. Horretarako ia hamar urte behar izan ditu. Pentsa ezazue: hamar urte Arrasate Press astero-astero zuen eskuetan jartzen. Makina bat lan eta informazio mordo. Mereziz izan du.



ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 77 05 65. Faxa: 77 09 40
E-mail: arrasatepress@readysoft.es

Laguntzaileak: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Joxe Aranzabal. **Kazetariak:** Iñxaro Zubillaga, Marian Porcoi, Naiara Goroñi. **Publizitatea:** Kaitlin Allende, Nerea Zallo (Tel.: 77 08 15). **Administrazioa:** Ikeme Altube (Tel.: 79 02 26). **Disenua:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxeberria, Marta del Campo, Iban del Campo, Iñxaro Artola, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreurreta, Juan Luis Azkarate, Aitor Orobenagoa, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saila, ASA taldea, Eneko Allende, Besaide M. E., Karmelo Urbarren, Bixente Pagoga, Amalia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agornia, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Maite Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Latorra, Karmele Perez, Kopti, Jon Ozaeta, Jabi Luengo, Maite Barreña. **Banaketara arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 77 12 28). **ARRASATE PRESS. Tirada:** 6.300. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Geru Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen aldirizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Goio Arana.



Arrasateko Udaleren laguntza



Gipuzkoako Foru Auzundaren laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

18

asteazkena

■ ZINEA

Abre los ojos. Alai zine-
man, arratsaldeko 19:00etan
eta 22:00etan

20

ostirala

■ ZINEA

Abre los ojos. Alai zine-
man, arratsaldeko 17:00etan,
19:30etan eta 22:00etan

■ MUSIKA EMANALDIA
GAZTETXEAN

Bartzelonako *Los Gua-
rriors* eta Donostiako *Disci-
pulos de Dionisostal*deek ema-
naldia eskainiko dute Gazte-
txean, gaueko 21:00etan.

22

igandea

■ ZINEA

Jackie Brown. Alai zine-
man, arratsaldeko 17:00etan,
19:30etan eta 22:00etan

■ UDABERRIKO
TXIRRINDULARI
LASTERKETA

Gazte mailako Udaberri
Saria txirrindulari lasterketa,
arratsaldeko 15:30etan.

■ EPINCARNATUS
GANBERA ORKESTRA

Epincarnatus Ganbera
Orkestra opera emanaldia
eskainiko du Amaia antzokian,
arratsaldeko 19:00etan. Sarre-
ra: bazkideentzat, 500 pta. Ez
direnetzat 1.000 pezeta. Arra-
sate Musikalek antolatu du.

23

astelehena

■ ZINEA

Jackie Brown. Alai zine-
man, arratsaldeko 19:00etan
eta 21:30etan.

■ ODOL EMATEAK

Arrasateko anbulatorioan,
arratsaldeko 16:30etatik
20:00etara.

■ LORAGINTZARI
BURUZKO HITZALDIA

Gaia: *Gonbidatuen
Mahaia Lore Bidez Apainduz.*
Hizlaria: Xabier Kerexeta.
Monterronen, arratsaldeko
16:30etan. Eroskik antolatu-
ta.

19

osteguna

■ ZINEA

Abre los ojos. Alai zine-
man, arratsaldeko 17:00etan,
19:30etan eta 22:00etan

21

larunbata

■ ZINEA

Jackie Brown. Alai zine-
man, arratsaldeko 17:00etan,
19:30etan eta 22:00etan

M Altzariak
Diseinua
Apainketa
ARENAZA

Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 79 08 07

KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis
Tel.: 77 09 92 / Faxe: 79 78 14
ARRASATE

San Lorenzo, 39 etxabea
Tel.: 78 21 82
OÑATI

Sili Sili

Martxa eta estilo
handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 79 81 82

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tfnoa: 79 76 58
ARRASATE

Memesa

79 42 22

HIES
EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiraletan
5etatik 8etara.

Tel.: 79 26 99

24 25

asteartea asteazkena

■ **ZINEA**

Jackie Brown. Alai zinema, arratsaldeko 17:00etan eta 21:30etan.

■ **ODOL EMATEA**

Arrasateko anbulatorioan, arratsaldeko 16:30etatik 20:00etara.

■ **LORAGINTZARI BURUZKO HITZALDIA**

Gaia: *Etxe Barruko Landareak.* Hizlaria: Xabier Kerexeta. Monterronen, arratsaldeko 16:30etan. Eroskik antolatuta du.

■ **LORAGINTZARI BURUZKO HITZALDIA**

Gaia: *Etxe Kanpoko Landareak.* Hizlaria: Xabier Kerexeta. Monterronen, arratsaldeko 16:30etan. Eroskik antolatuta du.

■ **HISTORIARI BURUZKO HITZALDIA**

Gaia: *Euskal Herriko Langile Mugimendua.* Hizlaria: Patxi Barandiaran. Eskola Politeknikoko areto nagusian, arratsaldeko 19:00etan.

■ **CHERNOBIL LAGUNEN MUSIKA EMANALDIA**

Martxoaren 28an, *El Caserio* Zarzuela eskainiko da Amaia antzokian. Arrasateko *Chernobil Lagunak* elkarteak antolatuta du emanaldia.

■ **FAMILIA ETA GIZARTE HEZIKETARAKO ZENTRUAREN IKASTAROAK**

IVA-IRPF buruzko ikastaroa. 40 orduko iraupena. Saioak asteartean eta ostegunetan izango dira, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara. Martxoaren 31n hasiera. *Liburu joste ikastaroa.* Asteartetan emango da, arratsaldeko 16:00etatik 18:00etara. Izena emateko jo zentruko egoitzara. Azken eguna maiatzaren 25a izango da.

■ **ARTISTA GAZTEEN ERAKUSKETA HARRESI ARETOAN**

Martxoaren 22ra arte, Arrasateko artista gazteen erakusketa izango da Harresi aretoan. Orduategia arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara.

Larunbat eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

■ **7 ESKALE ARRASATEN**

Apirilaren 2an, 7 eskale taldeak emanaldia eskainiko du Amaia antzokian. Gazte Asteak antolatuta du.

■ **DENDA BERRIEI BURUZKO JARDUNALDIAK**

Jardunaldiak: denda berriak. Saioak arratsaldez emango dira. Merkatarietako laguntza teknikoa emateko bulegoak antolatuta, martxoaren 24an hasiko dira. Berri gehiagorako deitu 79 30 90 zenbakira.

■ **JUBILATUAK LISBOAKO EXPORA**

Gizartekintzak Lisboako Expo 1998ra joateko bidaia antolatuta du hirugarren adinekoentzat. Bost eguneko txangoak 52.200 pezeta balio du. Izena emateko epea zabalik dago. Horretarako, udaleko Ongizate sailera jo.

DISCO-BAR




Disco-Bar Gurelekun girorik onena aurkituko duzu.


Zarugalde, 17 behea • ARRASATE
Tel.: 79 20 29

TOLDOS LECE

Kataide Poligonoa, 14
Musakola • ARRASATE
Tel.: 79 23 83
Faxa: 77 04 45

Eguzkiari aurre egiten diogu inork baino hobeto

OPEL 



TAKOLO AUTOAK

Araba etorbidea, 3 • (ESKATU pabilioia) • ARRASATE • Tel.: 79 05 86



ZUZEN ZUZENEAN FABRIKATIK ZURE ETXERA




Sukalderako Altzarien Fabrika

Kataide industrialdea • 6. pabilioia • ARRASATE • Tel.: 79 91 75

Euskadiko
Kutxa
Renta
Asegurada I



Euskadiko Kutxa "Renta Asegurada I"ek
4 urteko egonkortasuna ziurtatzen dizu
zure inbertsioan.



Ez dakizu 2002.ean zer gertatuko den.

Inberti ezazu " Euskadiko Renta Asegurada I" inbertsio-fondo berrian eta ez kezkatu 2002. urteko apirilera arte. Inbertitzen duzun millioi bakoitzeko, lau urtean 8.000 pta.ko errenta jasoko duzu hiruhilero, inolako atxikipenik gabe. Eta abantaila fiskalekin. Harpidetu zure inbertsioa apirilaren 15a baino lehen, baliteke hau bezalako beste aukerarik ez izatea eta. Informa zaitez Euskadiko Kutxaren sukurtsaletan edo 901-333 444 telefonoan.



**CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA**

Erantzun zuzena.

Arrasate, 1998ko martxoa

*Eskerrik asko gure bizkuntzari
bizirik eusteagatik.*

*Eskerrik asko 400 aukeratan
laguntzeagatik.*

Eskerrik asko zuen lanagatik.

Zorionak!



la merced

IKASTETXEA

Jose Luis Iñarra pasealekua • ARRASATE • Tel.: 79 27 73 / Faxa: 79 20 92

EZ DAGO KONPARA

Nola ikusi duzu orain arte Arrasate Press?



Mercedes Lagunilla
(47 urte)
Etxekoandrea

Oso ondo. *Fotozaharra* da gehien gustatzen zaidana, gauza zaharrak gogoratzeko. Inkestatxoa ere asko gustatzen zait. Ulertzen ez dudana etxekoek itzultzen didate.



Jonatan Fradejas
(18 urte)
Ikaslea

Oso ondo ikusten dut *Arrasate Press*. Ostiralero irakurtzeko ohitura daukat eta gustura egiten dut. Ez ditut argazkiak begiratzen soilik, irakurri ere egiten dut.



Zaloa Lekua
(21 urte)
Ikaslea

Ez dut ezagutzen, Bilboko naiz eta inoiz ez dut ikusi.



Pedro Mari Berezibar
(24 urte)
Langilea

Oso gustatzen zait. Gehien gustatzen zaidana inkestak izaten dira. Herrirako oso polita eta interesgarria da, hemen gertatzen diren gauza guztiez jabetzeko.



Arantxa Bieira
(44 urte)
Etxekoandrea

Astero irakurtzen dut eta oso gustatzen zait. Ez dago ezer bereiziki gustatzen zaidana, dena dut gogoko.




Marcos Frutos
(14 urte)
Ikaslea

Izugarri gustatzen zait. Oso interesgarria da. Niri kirolak gustatzen zaizkit gehien.



Antonia Rodriguez
(29 urte)
Langilea

Astero irakurtzen dut. Gehienetan lehenengo irakurtzen dudana *Azoka plaza* izaten da. Gero beste guztiari ematen diot errepassoa.



Iñaki Lete
(41 urte)
Langilea

Ondo dago. Nire ustez futbol gehiegi du, baina bestela ondo dago. Futbolaz gain, herriko beste ikuspegi bat eman beharko luke, gauza gehiagoz jabe gaitezen.



Danona
KARROZERIAK

Konponketak, txapa eta pintura

Musakola auzoa, 15 • ARRASATE • Tel.: 79 58 06

ORTO + LAGUN

O R T O P E D I A

Etxean gaixoren bat badaukazu, zuri laguntzeko prest gaude:

- Ohe artikulatuak
 - Zirkulazioari eragiteko koltxoak...
- Zuk behar duzun laguntza guztia!**

Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 79 89 34

USTEAK USTE

*Bihar
San Josef*

Bihar, martxoak 19, San Josef da. Ondo

irakurri duzue: San Josef. Hemen ez dago inprimatze hutsik.

Orain hil batzuk Euskaltzaindiak santutegiko izenak euskaraz nola esan erabaki zuen. Horien artean badira zenbait Arrasaten dexente erabiltzen direnak: San Joan Bataiatzailea, herriko zaindaria, Santo Tomas, San Frantzisko, Santa Agata (Santa Ageda), San Isidro Nekazaria, San Andolin eta San Laurendi (Lorentzo) Musakolan, San Eztebe edo Doneztebe Udalan.

Hauetako batzuk eta beste hainbat, San Josef moduan edo San Pedro esateko erabaki den San Petri bezala, gogor egingo zaizkigu hasieran. Hala ere, Arrasate Pressen santutegian ere Euskaltzaindiak erabakitako bidetik jotzea erabaki dugu, guk ere parte hartu nahi dugu eta, euskararen batasunean. Horregatik, ez harritzeko eskatuko dizuet hemendik aurrera San Josef, Santa Agata eta San Joan izenak irakurtzen badituzue orrialde hauetan.

Joxe Aranzabal



Manifestu komunista

Joseba Ugalde

Duela mende eta erdi sortu eta tsarren Petrograd hartan Aurora izeneko akorazatuaren argi distiratzailleek inauguratu zuten manifestu hartaz idaztean, gogoratzen dut Arthur London, zelan erakusten digun "aitormena" deklarazioan komunismoaren alderik txarrrena, estalinismoa.

Baina artikulua honen asmoa ez da sozialismo erre-alaren sistemak aztertzea, Manifestua sortu eta handik mende eta erdira, indarrean dagoen sistemari kontra egiten dion ezkerren beharra baizik. Zelan egin aurre diskurtso horri, zelan apurtu hori guztia egin eta jartzen duen mundu ekonomiko-mediatikoaren hegemonia?

Gizartea aldatzeko borondatea adierazi behar du ezkerrek. Ez da nahikoa aurrekontuak gestionatu nahi izatea (gobernuarena, autonomia, diputazioena, udalena...).

Galdutako sinesgarritasuna berreskuratu behar dugu; ezkerrek erreinbidikatu behar du, kolektibotasunaren etika erakusten duen politikaren kontzeptio bat, demokrazia erradikal bat ezarri behar du barrualdera, parte hartzea sustatu behar du, apurtu

egin behar du erabakiak aparratuak baino ezin dituela hartu erakusten duen irudiarekin, eta alderdiko militanteen borondatea onartu behar du.

Eta are gehiago: ezkerrek, gaur, Manifestua egin eta mende eta erdi geroago, askotarikoa baino ezin du izan. Kultura eta tradizio desberdinetatik gatoz denok; mundua ulertzeko moduan bereizten gaituen kultura bat daukagu.

Baina gizartea benetan aldatu nahi dugun guztiok gauza gehiago dugu batzen gaituena bereizten gaituena baino; eta ados jarri gaitzek. Bost axola dio zein kulturatatik zatozen, libertarioak, sozialdemokratak, komunistak, behartsuen ebanjeliotik edaten duten kristauak, edo ekologista edo feministen moduko mugimendu berriak. Langabea beti langabe, etxebizitarik gabeko

gaztea beti etxerik gabeko gaztea, emakume diskriminatua halaxe dago benetan, osasun publikoa denontzat, insumisoez gartzelan jarraitzen dute, autodeterminazio eskubidea ez dute aintzat hartzen eta ingurugiroa desegiteak ez digu guri bakarrik eragiten, are txarrago, datozen belaunaldiei eragingo die.

Egoera horren aurrean ez dago alternatibarik: aldatzearen aldeko ezkerria, aniztasuna aitortzen duelarik, lanean hasten ez bada orpoz-orpo, elkarrekin bat eginda borrokatzeko, gizarte honetan hazi egingo dira marginazioa, bazterkeria eta intolerantzia.

Bizimodu desberdinaren alde egin behar du ezkerrek, mundua beste modu batez ikusteko modua: beste zibilizazio-era bat.

Batzuk pentsatuko dute, agian, utopia dela, ezker hori ez dagoela inon eta ez dela inoiz halakorik izango. Oker daude. Baina hori horrela izateko, eta orain inoiz baino gehiago, balore horiek bereganatzen dituzten guztiek, hemen aipatu direnak eta beste hainbat, konpromisoa hartu behar dute balore horiekin.

Hasi gara seinale batzuk ikusten: ezker berri bat, gizartea aldatzeko gai, eta XXI. menderako espero dugun ezker hori gure eskuetan dago, denok behar gaitu eta. "Milaka porrotaldiren seme-alabak" esaten du zapatistek egingo erromantze kantu batek, eta eszeptikoagoak gara mende berriari begira, baina gehiago dakigu eta inoiz baino gehiago behar dugu Manifestu berri bat, jendeak aske eta berdintasunean bizitzeko duen gogoia armagabe eta suntsiturik gertatu izan ez dadin betiko.

Joseba Ugalde
EBko zinegotzia

“
Aniztasuna aitortzen duen
ezkerria lanean hasi behar da,
mundua aldatu nahi duten
guztiak bilduz
”

EZ DAGO KONPARAZIORIK




OMU
ZERAMIKAK



Biltegia eta bulegoak: Meatzerreka, 6 • Tel./Faxa: (943) 79 14 28 • ARRASATE
Erakusketa: Otalora, 1 behea • Tel.: 79 07 20 • ARRASATE

ERAIKUNTZARAKO MATERIALAK

Aldibi



**Aldibi,
etorkizunari
aurrea
hartzuz.**

- Ordezko pieza originalak
- Salmenta osteko zerbitzua
- Finantzaketa zure neurrira
- Aseguru desberdinak zure zerbitzura
- Autoen alokairuen enpresa eta renting-a
- Aukerako 100 autotik gora, marka guztietakoak
- 3.000 m² automobilari eskainita



Zatoz eta ezagutu gaitzazu!



Aldibi autoak, S.A.



Izar autoak, S.L.

VOLVO

Mondrakar, S.L.



mazda

Musakola autoak, S.L.



GALLOPER

Aldikar autoak, S.L.



Co-Car, S.L.



HYUNDAI

Musakola autoak, S.L.



**MITSUBISHI
MOTORS**

Aldikar autoak, S.L.

astea bi hitzetan

■ **Fagor McLean-Mabe hitzarmena**

Fagor Elektratresnak kooperatibak hitzarmen bat sinatu du Mabe enpresa argentinarrarekin. Hitzarmenaren arabera, Mabe izango da Fagorrek Argentinan duen McLean enpresaren bazkide. Mabek 1.800 milioi pezeta inbertitu du McLean-en. Beraz, enpresaren erdia berea izango da. Argentinako linea zuriaren merkatur bereganatu nahi du Fagorrek hitzarmen honen bidez. Mabek

Hegoamerikan duen sare komertzialari esker, beste lurraldeetara hedatuko da.

■ **Josu Arkauzen epaiketa atzeratu**

Josu Arkauzen epaiketa maiatzaren 7a arte atzeratu da, abokatuak eskatutako frogak batzuek falta direla eta. Horrez gain, Arkauzen abokatuak nazioarteko begirale batzuek egindako txostena aurkeztu zuten, estradizioa legez kanpokoa dela adieraziz.

■ **Gazte Astea bukatu da**

Joan den igandean bukatu zen Gazte Astea. Antolatuak egingo dute hurrengo astean, baina oraingoz pozik azaldu dira, gazteengandik jasotako erantzuna oso ona izan delako. Oraindik, zenbait gauza egingo dira: 7 Eskaleren kontzertua apirilaren 2an; mural erraldoiaren mergoketa bukatuko da eta Harresi aretoako erakusketak ere astebete gehiago iraungo du.



IKASLEEN GREBA

Bi orduko greba egin zuten joan den ostegunean irakaskuntza ertaineko ikasleek, aldikako lan enpresak salatzeke. Arrasaten egindako kale agerraldian, 20 bat ertzain manifestarien atzetik joan ziren ibilbide osoan zehar. Ertzainetako batek, ikasleen irudiak grabatu zituen. Arrasateko aldikako lan enpresak itxita egon ziren.



Arrasaten (...) euskararen erabilpenak gorakada nabarmena jasan du azken urteetan, eta honen 'erru' guztia AEDrena ez bada ere, zerikusi nabarmena izan du.

1988an kaleko erabilera %14koa zen, 91n %15koa, 93an %22koa eta 1977an, azken inkestaren arabera, arrasatearren %27k erabiltzen du euskara. Datu hauei so eginez gero, azken 10 urteetan euskararen erabilera ia bikoiztu egin dela ohartzen gara. Aldaketa hau gaztetxoengan eman bada ere, helduengan ere erabilera ia bikoiztu egin da".

IKER ALTUNA

Argia, 1998ko martxoak 15

"EDERTU"

Ileapaindegia • Solariuma • Depilazioa



Martxoan eta apirilean:
Solarium eskaintza berezia!
10 saio=6.500 pta.

San Andres auzoa • Tel.: 79 04 28 • ARRASATE


LEBER

GABINETE PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnosien bitarteko aholkularitza.
- Area ezberdinen errefortzua-berreskurapena (hizkuntza, arrazoiketa...)
- Eskolako edozein zailtasunerako laguntza.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ordutegia: 15:30etatik 19:30etara.

Basabe industrialdea
ARETXABALETA • Tel.: 79 56 98



EAJren batzarra

Arrasateko Eusko Alderdi Jeltzaleak ostegunean egin zuen batzarra. Alde batetik, Uri Buru Batzarreko lehen-dakaria aukeratu zuen: Agustín Ugarte. Horrekin batera, bederatzi bokal ere aukeratu zituen, baina hauen zerrenda datorren astean emango dute aditzera jeltzaleek, antza denez, zenbaitzuen artean enpateak izan dira eta.

Bestetik, batzokian bildutakoek Juan José Ibarretxe eta Juan Mari Atutxa aukeratu zituzten hurrenez hurren, Eusko Jaurlaritzako eta Eusko Legebiltzarreko lehendakariak izateko.

Jaiotzak

- Laura Balanzategi Ayala. otsailaren 23an.

Hildakoak

- Manuela Prieto Bermejo. 89 urte. Otsailaren 26an.
- Jose Luis Rodríguez Aznar. 66 urte. 26an
- Karmen Olano Meaurio. 79 urte. 28an.

Rosa Diez atera zen irabazle Arrasateko sozialisten artean

Arrasateko sozialistek nahia-go izan zuten Rosa Diez lehendakari moduan. Nicolas Redondok baino bost boto gehiago lortu zituen hemen. Hala ere, Redondo izango da sozialisten lehendakariaga datorren urriko hauteskundeetan.

Gainerako hauteskudeetan bezala, bozketa goizeko 09:00etan hasi zen sozialisten Herriaren Etxean eta arratsaldeko 20:00ak arte iraun zuen.

Pablo Iglesias, Julian Bes-teiro eta Largo Caballero sozialista historikoen begiradapean eratu zen mahaia, Petri Romero mahaiburua zela. Jende gehiena bazkalostean agertu zen, patxadaz.


Partidu Sozialistak 78 kide ditu Arrasaten. Horietaik 51 etorri ziren botoa ematera, hau da, kideen %65. Rosa Diezek 28 boto jaso zituen. Nicolas Redondok, aldiz, 23. Bost gutxiago. Sozialistak pozik agertu ziren parte hartzearekin.



Petri Romero mahaiburua, Oscar Garcia gaztearekin.

Botoak zenbatu eta gero, Bilbora bidali ziren. Handik ordubetera edo, jakin zen Nicolas Redondo izan zela irabazlea, hau da, Arrasaten galdu zuen hautagaia. Beraz, arrasatearren gogoak ez ziren bat etorri sozialista gehienengoekin.

Aipatzekoa da lehen aldia dela Alderdi Sozialistak lehendakariaga aukeratzeko hauteskundeak antolatzen dituela. Gure artean esperientziarik ez badago ere, Estatu Batuetan urte luzetako tradizioa du sistema honek.



- Solarium-a dutzarekin.

LAURA

ESTETIKA ZENTRUA

- Depilazioa argizari hotz edo beroarekin.
- Depilazio elektrikoak (BLEND metodoarekin).
- Aurpegiaren tratamenduak.
- Masajeak.

Martxoan eta apirilean solariumeko 10 saio + 1 oparitan eskaintza berezia 8.000 pta.tan.

Uarkape kalea, 2, E1., ezk. • ARRASATE • Tel: 79 22 88

Oraindik aldaketarik ez aurrejubilazioen arazoan

Urak ez dira oraindik baretu kooperatibetan, jakin zenetik apiriletik aurrera Espainiako Gizarte Segurantzako Institutuak ez zuela aurrejubilazioerik onartuko autonomoentzat, orain arte egindako baldintzetan behintzat.

Jakin izan dugunez, 2.000tik gora kooperatibista ari ziren kotizazio bereziak egiten, hirurogei urte betetakoan jubilatuta ahal izateko. Gauzak ez badira aldatzen, eta ez dirudi orain arteko bidetik aldatuko direnik, ezin izango dute beren ametsa bete.

Arazoa larria da kooperatibentzat. Izan ere, orain artean aurrejubilazioa izan baita kooperatibek erabili duten bidea beren langileria zaharberritzeko. Azken bost urteotan, adibidez, 750 langile jubilatuta dira hirurogei urte-



Azken bost urteotan 750 kooperatibista jubilatuta dira hirurogei urterekin.

rekin kooperatibetan. Bide hau erabiliz, gainera, kooperatibek diru dexente aurreratu dute. Izan ere, langileak adinez aurrera doazen neurrian, kooperatibeentzako kostoak ere gora baitoaz.

Inguruko gazteek ere badute zertan kezkatu: gau-

zak ez badira aldatzen, 2.000tik gora gazte kalean geratuko dira nahi baino denbora luzeagoz, ezin izango dituzte-eta jubilatuta behar zirenak ordezkatu.

Dena den, talde bat sortu da kooperatiben barruan, arazo honi irtenbideak bilatzeko.

Untza enpresa Iturbide Egoitzara

Udalak Untza enpresari adjudikatu zion Iturbide Egoitzako zerbitzuaren ardura joan den ostiralean egindako osoko bilkuran. Alderdi guztiek adjudikazioaren alde egin zuten Ezker Batuak izan ezik, abstenitu egin baitzen. Adju-

dikazio honek izan du gora beherarik. Untza bigarren geratu zen lehiaketan, baina irregulartasunak salatu zituen. Epaimahaiak azkenik, enpresek aurkeztutako langileen esperientzia kontuan ez hartzea erabaki zuen. Hau dela

eta, Untza enpresak atera zuen puntuaziorik altuena. Untzak lortutako azpikontratua bost urterako da. Apirilean hasiko dira lanean, printzipioz urtebeterako. Untzakoez 1.800 pta kobratuko dute lan ordu bakoitzeko.

Unibertsitate arteko ituna

Mondragon eta Deustuko unibertsitateetako agintariek elkarlanerako hitzarmena sinatu zuten joan den astean. Nazioartean unibertsitate biek aurrera segituko dute Europako ikerkuntza eta garapenerako programetan lan egiten. Horrez gain, Hegoamerika jotzen dute lan egiteko esparru interesgarritzat.

Unibertsitate bien arteko elkarlanari dagokionez, kalitatea lantzeko konprometuzua hartu dute biek. Baita unibertsitate biek dituzten ezaugarrietan sakontzekoa ere.

Antzerkia haurrentzat

Gaur bukatu dira Arrasateko Udaleko Hezkuntza eta Kultura batzordeak ikasleentzat antolatutako antzerki jardunaldiak. Azken urteotako asmoari eutsiz, gaztetxoan artean antzerki zaleatasuna piztu nahi izan da. Antzerkia bai kanpotik zein barrutik ezagutzeko, antzerki talde profesionalen lana ikusi, Amaia antzoki-ko instalazioak ezagutu, eta eurak prestatutako antzezlanak taularatu dituzte. Antzezlanak 4 eta 14 urte bitarteko 2.600 inguru ikaslek ikusi dituzte.


S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikaren erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 79 01 82




HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiralean
5etatik 8etara.

Tel.: 79 26 99

A ZE NOLAKO AMUARRAINA!

Igandean zabaldu zen arrantza denboraldia eta dirudienez, batzuek gogo bizia zuten arrantzan egiteko. Alberto Ormaetxea, Musakolan bizi den aramaioarrak, igandean bertan Aramaixo errekarara joan eta sekula harrapatu duen amuarrainik handiena hartu zuen.



TXIRRI, MIRRI ETA TXIRIBITON

Antzerkiko banbalinen ostean harrapatu genituen guk Euskal Herriko pailazorik ospetsuenak. Makilaje apur bat, kolore bizietako arropak eta *voilà*: Txirri, Mirri eta Txiribi-

ton, instant batean. Amaia antzerkiko agertokian neska-mutikoak liluratu zituzten joan den igandean. Jasotako diru guztia Urruñako ikastola eraikitzeko erabiliko da.

GAMMA

- ELEKTROLOGIA ZENTRUA
- BEHIN BETIKO DEPILAZIOA

Aurpegi eta gorputzerako tratamendua • Doaneko kontsulta

Maalako Errabala, 17, 1.A • ARRASATE • Tel: 79 51 25

Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta Serrano Doktorea

HAURDUNALDIA
AMNIOZENTESIA
ANTISORKUNTZA

MENOPAUSIA
BASEKTOMIA
BULAR PATOLOGIA

SAN MARTIN OSASUNDEGIA

Ramón M. Lili, 2 • BERGARA • Tel. 76 59 39 / 76 59 72 • Fax: 76 25 72

LAN ESKAINTZA

Plaza hau hornitzeko deialdi irekia:

JAKINARAZLEA

Izaera: funtzionario plaza.

Baldintzak:

- 18 urte gutxienez.
- Eskola agiria.
- 2. hizkuntza eskakizuna.

Oinarriak: udaletxean jaso daitezke.

Izena emateko azken eguna: martxoaren 31.



ARRASATEKO UDALA

PERTSONAL SAILA



Hauek Txirri, Mirri eta Txiribitonek baino makilaje gehiago erabiltzen dute, baina ikuskizuna pailazoena bezain bitxia da. Nere Azpitarte Zabalegi, beltzez jantzitako neskatxak eta bere lagunek larunbat arratsaldean alaitu zuten euren kantu eta dantzekin. Gazte Asteko antolatzaileek gonbidatuta etorri ziren herrira, eta lortutako arrakasta ikusita, laster itzuliko dira seguraski.

250 ZUHAITZ

Arrasateko 6. mailako 240 ikaslek Zuhaitz Eguna ospatzeko arbolak birlandatu zituzten Hidalgo mendian. Batzuek aitzurrekin, beste batzuek eskuz, Garagartzatik eramandako 250 lizar, astigar eta haritz sartu zituzten lurrean. Haurrei esker, Hidalgo mendian haziko dira eta urte batzuetara zuhaitzi ederra izango dugu. Udaleko Ingurugiro eta Kultura Sailak antolatutako egun honen bidez, naturarekiko errespetua piztu nahi da gazteengan.



IZENAK

Agustin Ugarte

izango da datozen bi urteotan Arrasateko EAJko lehendakaria. Agustin Ugarte Irunen jaio zen, Eskola Politeknikoko irakaslea izan zen eta gaur egun Eusko Jaurlaritzan egiten du lan, Transmisioetan. Azken bi urteotan ere bera izan da lehendakaria.

Jon Anduezaren

Laugarren Galeriatik film laburrak Biasteriko IV. Bideo Lehiaketa irabazi du. 120 film aurkeztu baziren ere,



sarituak beste aipamen hauek ere irabazi zituen: zuzendaririk onena, gidoirik onena, argazkirik onena, girorik onena eta musika girotzerik onena. Irabazleak 150.000 pta sakeleratu ditu.



Elizondo
kafetegia



Garagartza auzoa • ARRASATE • TEL.: 79 15 99

Lore

Lurrindegia

Olarte kalea, 10 • ARRASATE
Tel.: 79 52 50

JAI ZALE TABERNA

• Bokatak • Infusio naturalak eta...

• Pintxoak MARTXA TOPATUKO DUZU!

Olarte, 37 • Tel.: 79 67 92 • ARRASATE

**BASABE
JATETXEA**

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tel.: 79 91 84

ARETXABAETA

JUAN RAMON GARAI (EZKER SINDIKALEKO BOZERAMAILEA)

“Txapela kentzen dut ko

Comisiones Obreras sindikatutik irten den Ezker Sindikaleko bozeramailea arrasatearra da. Juan Ramon Garai. Beti Union Cerrajeran egin du lan 48 urteko maisu industrial honek. Berak sortu zuen Arrasateko Comisiones Obreras, orain hogei-ta bost urte. Bi seme-alaba ditu eta bere bizitzako une erabakiorrean dago.

— Nola eta noiz hasi zinen sindikalgintzan?

— Aurretik, ETAn ibili nintzen. Txabi Etxebarrieta zen gure liberatua. Igande goizetan meza euskaraz entzun eta mendira joaten ginen, bilerak eta, egitera. Beranduago sindikalgintzan hasi nintzen, beste lankide batzuekin batera. 1974an Arrasateko Comisiones Obreras sortu genuen. Harrezkero CCOOetan ibili naiz; ejekutiban 10 urte egin nituen.

— Politikan nondik nora ibili zara?

— ETAn hasi nintzen. ETA VIra pasatu nintzen gero. Ondoren, LKIn ibili nintzen eta gaur egun Zutik taldean dihardut.

— 150 urte igaro dira Karl Marxek Manifestu Komunista idatzi zuenetik. Zer geratu da testu hartatik?

— Marxismo erreala jausi egin da, baina Marxek esandako gauza askok oraindik ere balio dute. Hark zioenez, kapitalista langilearen gainbalioekin geratzen da. Gaur egun ere horrela da. Gainera, Lehen Munduan bizi garenok Hirugarren Munduko gainbalioekin geratzen gara, eta lana dugunok langabeenekin.

— Sinesten duzu iraultzan?

— Momentu batean uste genuen iraultza Errusian bezala egingo zela hemen, alegia, langileok egun batean eskuratuko genuela agintea. Gaur egun ikusten dugu hori zaila dela, lehenengo gure barruan


egin behar dugulako iraultza.

— Ez duzu inoiz pentsatu lau katu zaretela?

— ETAn hasi ginenean lau katu ginen eta umemokoak, gainera. Sindikalgintzan hasi ginenean ere, beste horrenbeste. Transizioan, lau katu ginenok lau katu bezala geratu ginen eta beste batzuk aprobetxatu ziren gure lanaz. Beti izan gara lau katu, baina zenbait momentutan jende asko biltzeko ahalmena izan dugu.

— Nola ikusten duzu

“Kontu hauetan hasi nintzenetik, beti izan gara lau katu, baina zenbait momentutan jende asko biltzeko ahalmena izan dugu”



operatibisten aurrean”

Frantziako langabeen mugimendua?

— Mugimendu hori ez da egun batekoa. Langabeek urteak daramatzate lanean, sindikatuen laguntzarekin. Hemen, berriz, langabeak bakarrik mugitu dira, sindikatuak ez. Eta bakoitza bere aldetik dabil. Koordinazioa falta da.

— 35 orduko lanasteak konpon lezake langabezia?

— Ez, baina aberastasuna banatzen lagunduko du. Dena den, neurri hori eraginkorra izan dadin, ordutegitik kanpoko orduak desagertarazi behar dira.

— Sindikalismo borrokalaria eskatzen duzue Ezker Sindikalean.

— Gaur egun askok esaten dute borrokak ez duela ezertarako balio. Nire esperientziak, berriz, besterik diost. Negoziario bidez ezer gutxi atera dakieke enpresarioei,

baldin eta aurretik ez badugu indar erlazioa langileen alde jartzen. Horretarako mobilizazioak egin behar dira.

— Kooperatibek zuena ez den beste modelo bat bul-tzatzen dute.

— Nik txapela kentzen dut Arrasateko kooperatibisten aurrean, eurei esker izan ez balitz, hau basamortua izango litzatekeelako. Hala ere, elkartasun gutxi ikusten dut nik kooperatibetan: baldintza negargarrietan egiten diren behin behineko kontratu asko egiten dira.

— Nola ikusten duzu ELA-LAB ardatza?

— ELAk esatea Estatu-tuak ez duela balio oso pauso handia da. Baita euskal preso-en alde duen jarrera ere. Guk ere uste dugu preso-en arazoa konponduz gero, beste arazo batzuk ere konponbidean jar daitezkeela.

— Nola finantzatzen dira sindikatuak?

— Alde batetik, sindikatu guztiok kobratzen dugu diru kopuru jakin bat hauteskunde sindikaletan ateratzen dugun ordezkari bakoitzeko. Hortik

aparte, ezin dugu frogatu, baina ziur gaude sindikatuen artean ere badagoela finantziario izkurturik.

— Herri aurreratueta sindikal gintza gainbehera doa.

— Baliteke. Hemen ere puntako teknologia erabiltzen duten enpresetan ere ez dute ezer jakin nahi sindikatuekin, ondo dabilzan artean. Baina nora joango dira gauzak txarto jartzen zaizkienean? Sindikatueta.

— Ezker Sindikalak hiru eskaintza izan ditu, beste horrenbeste sindikatutatik. Zein iruditzen zaizu egokiena?

— Ezin diot galdera horri erantzun. Gaizki egongo litzateke gure arteko eztabaida ireki aurretik nik ezer aurreratzea. Dena den, gustatuko litzaidake Maiatzaren Lehenerako kontu hori erabakita izatea. ■

“Ez dugu frogatzeko modurik,
baina ziur gaude
sindikatuaren artean ere
badagoela finantziario izkurturik”



AHOLKULARIAK

ASEGI TALDEA

- Lan zerbitzuak
- Kontularitza
- Zerbitzu fiskalak
- Zerbitzu juridikoak
- Kontu-ikuskaritza
- Pertsonal aukeraketa
- Bideragarritasun azterketa

Otalora Lizentziatua, 4, etxabea • ARRASATE • Tel.: 79 93 11

Peña y Goñi, 2 • DONOSTIA • Tel.: 28 17 00

P. del Olmo, 14 • DONOSTIA • Tel.: 40 10 00

Judoka

MAIALEN ARANEGI

"Judoan gustura nabil. Gainera primerako giroa dago gure artean"

— **Noiztik judo taldean?**

— Orain zortzi urte hasi nintzen. Nire anaia Gaizka hortxe zebilen eta horregatik animatu nintzen.

— **Beste kirolik egin duzu?**

— Errugbian jokatu nuen, baina neska bakarra nintenez, erabaki nuen judoan buru belarri sartzea. Orain gerriko urdina naiz. Judoan aritzeko indarra baino malgutasuna eta teknika dira garrantzitsuagoak.

— **Zein giro bizi da Judo taldean?**

— Ona, oso ona. Hiru neska gabilza eta gainontze-koak mutilak dira. Entrenamenduetan ere primeran pasatzen dugu. Dena dela, batzuetan gogorrak izaten dira, batez ere, txapelketaren bat prestatu behar badugu.

— **Lortutako emaitzarik onena?**


— Espainiako Txapelketan bosgarren tokia eskuratu nuen iaz. Borrokaldi asko egin nituen. Azken borrokaldian gogoratzen dut aurkariarekin parekatuta geratu nintzela, eta epaileak nire alde egin zuten.

— **Hurrengo txapelketak?**


— Aste Santutan Portugalera joango gara. Entrenamendu antzeko batzuk egingo ditugu lau egunean. Ondoren, Andorran izango gara. Hantxe Nazioarteko Txapelketa jokatuko da.

— **Anaiarekin egiten duzu borroka?**

— Batzuetan bai, eta berak irabazten du. Baina anai-arreba arteko borrokak izaten dira.




FUTBOLA Euskalduna eta Lagunak aurka



Mondrako Emakume Taldeak aste-buru bateko atsendena izan du. Etena primeran etorri zaie ideiak argitzeko eta indar berritzeko. Igande honetan beste aukera bat izango dute zer egiteko gauza diren erakusteko. Nafarroako Lagunak eta Mondra izango dira lehian. Lagunak sailkapenaren hirugarren tokian dago eta beti erakutsi du sendotasun handia.

Preferente mailako Mondrak Euskalduna taldea izango du aurka igandean Atxabalpen. Azken sailkatuaren kontrako neurketa itxuraz samurra ematen du. Gainera, Mondrak berriro lehenen artean sailkatzeko puntuak behar ditu eta hori lortzeko egingo dute borroka. Rafa Garcia ezingo du jokatu azken partidatxartel gorria ikusi zuten eta. Asier Lopez, berriz, zelairatzeko moduan izango da.

ESKUBALOIA Azken txanpan



Azken txanpan ere arrasatearrak ezin itxura ona erakutsi dabilta. Dena dela, lesioak min handia egingen ari dira taldean eta hori behin eta berriz pairatu dute. Datorren igandean Arrasatek etxetik kanpo jokatuko du berriro Donibanen kontra. Liderra izango dute aurka Dagoeneko hiru partida gertatzen zaizkie denboraldia bukatzeko eta, egia esateko, desiatzen daude. Gainera, Arrasatek baja asko izango du azken partidetan. Franek, Velascok eta Zabalok lesio larriak dituzte.

ERRUGBIA

Akabo denboraldia

Patxi Gorosabelen mutilek ezin izan zuten garaipena lortu azken jardunaldian. Euskal Herriko Unibertsitatea 11 eta 17 nagusitu zen Garagartzan. Hauen tzat bukatu dira partida ofizialak. Hala ere, entrenatzen segituko dute eta tarteka martekak lagunarteko partidak jokatuko dituzte. Ostegunean horietako bat izango dute Euskal Herriko Unibertsitatearen kontra, Bilbon.

SASKIBALOIA Lanean segitu behar

Arrasate Saskibaloia Taldeak ezin du amorerik eman. Bigarren aldian mailari eusteko gaitasuna duela erakutsi behar du. Horretarako garaipenak behar ditu, sailkapeneko azken tokia uzteko. Arrasatek Patronatoren kontra neurtuko ditu indarrak hamahirugarren jardunaldian. Partida ostegunean jokatuko da, eguerdiko 12:00etan La Casillan.

TRIALSIN Maila polita Udalan

Udalan jokatutako Trialsin Txapelketan, batez ere, maila ona aipatu behar. Arrasatek lau ordezkari izan zituen. Gazte mailan, Nestor Kortabarria bigarren tokian sailkatu zen, 14 punturekin. Xabi Abasolo laugarrena izan zen, 27 punturekin. Alebinetan Ander Agirrek seigarren tokia eskuratu zuen. Hasi berrietan, bestalde, Xabi Kortabarriak laugarren tokia lortu zuen.

IRITZIAK • HISTORIA • ARGAZKIAK • GOGOETAK

Arrasate

P R E S S

400.

zenbakia

Mila esker Arrasate!

Udaberrian PARISera IBAI-ARTEekin!

Martxoaren 21etik apirilaren 4ra arte,
IBAI-ARTEko dendetan eta zerbitzuetan
erosteak saria izango du.

Erosketa bakoitzeko, hainbat txartel
eskuratuko duzu.

Zozketa apirilaren 7an izango da ATBn,
zuzenean.

BIDAIA

- Apirilaren 30etik maiatzaren 3ra arte.
- Hegazkina+Hotela+Gosari amerikarra
(Aireportutik hotelerako garraioa barne).

GAINERA,


- Afaria Eiffel Dorrean.
- Ibiladia Sena inguruan.
- Garraio publikoa erabiltzeko txartela.





Bertsotan

Arantzazu Loidi



1

Buzoietara jαιο zinela
Aurki dira hamar urte
Ume hura zen esperimantu,
Eredu eta birtute.
Ordutik 400 zenbaki bota
ditugu edo dituzte
Ta 400 umek sortuagatik
Laurehun mila buruhauste
Urteek eta lanak umea
Gazte sendo egin dute.

3

Nik hiru urte pasa nituen
Pressen presaka lanean
Mondrauetarren berriemaile
Inondik eginahalean
Ilusioa eta ametsa
Beti hurrengo alean
"Berriemaile" apellidua
Eduki arren gainean
Emandakoa baino gehiago
Jasotzen da ordainean.

2

Ez da erraza oroitzapenak
Albo batera uztea
Pressen bizitza guretzat dago
Mila bibentziz betea.
Aldizkari bat bukatu eta
Atzetik dator bestea,
Gure artean asteak beti
Gainean baitu astea
Baina kementsu ta ilusioz
Lanean talde gaztea

4

Zer esanik ez, meritu gehien
Irakurleek daukate.
Lanaren ordain paregabera
Benetan zeuek zerate.
Bizi daitezen nahiz aldizkari
Nahiz telebistako kate.
Etorkizunak zabal ditzala
Denontzako 400 ate
Zorionak, Press, Arko, AED,
Zorionak, Arrasate.

Spek
Benda

MANDARINA-DUCK

Iturriotz, 19 (Herriko plaza) • Tel.: 79 41 29 • ARRASATE



Arrasate Pressek lau etxe izan ditu 1988tik: Zeharkale Estalian, Arrasate Pasealekuan, Ospital Zaharrean eta Otalora kalean. Herriko plaza gune bezala hartuta, denak 400 metroren bueltan daude. Batzuetan besteetan baino luzeago izan ginen, baina denak izan dira gure historia txikiaren lekuko. Hori dela eta, eta 400. zenbakia aitzakia hartuta, haien historia kontatu nahi dizuegu.

Etxe guztiak 400 metroren bueltan

Zeharkale Estalia, 1-1.B

Joxe Aranzabal

(1988ko abenduaren 2tik
1989ko uztailaren 30era)

1988ko azaroa zen. Hotza. Aldizkari bat egitekotan ginen, baina ez genuen non. Arrasateko Udalak Zeharkale Estaliko etxebizitza bat utzi zigun. Aurretik Aita Menni Ospitalak gaixoak tratatzeko erabilitako horietako bat. Hori zela eta, makina bat gaixo etorri ziren etxe hartan igaro genituen zor-tzi hilabeteetan zehar.

Sartu, Zeharkale Estalitik sartzen ginen. Etxeak bi gela, egongela, sukaldea eta komuna zituen. Lana egongelan egiten genuen, Iturriotz kalera ematen zuen gelarik handiengan. Bilerak eta, alboko gelan egiten genituen. Etxe iluna eta hotza zen. Argia beti piztuta egin behar izaten genuen lana.

Egongelan metalezko aparatelari batzuk ipini, hiruzpalau mahai eta behar ziren aulkiak sartu genituen. Lan egiteko hiru

ordenadore erosi genituen: hirurak Apple Macintosh Plus, pantaila txikikoak eta disko gogorrean 20 mega baino ez zituztenak. Gauregun Harri Arokoak dirudite, baina orduan punta-puntako teknologia zen. Garai hartan ez genuen filmatzen aldizkaria. Laser inprimagailuan inprimaturiko orriak eramaten ziren moldiztegiara.

Lehen zenbakia atera aurretik, Elhuyar aldizkariako maketagleak izan genituen laguntzen. Lehen lau zenbakiak, berriz, Jose Luis Agotek diseinatu eta maketatu zituen. Bosgarrenetik aurrera fitxaje berria sartu zen lan horietarako: Goio Arana.

Gure eskarmentu ezagatik batez ere, abendua eta uztaila bitarteko zenbaki gehienak egiteko, gaupasa mordoan egin behar izan genuen asteazken gauetan.

Uztailerako bagenekien oporren ostean etxez aldatu beharko genuela, gurea udalak hartu nahi zuen eta. Gu irten ginen, baina Arrasate Pressen plaka atarian egon da urteetan, orain gutxira arte.

Arrasate Pasealekua, 3 bis, etxabea

(1989ko irailaren 1etik
1990eko otsailaren 9ra)

Udako oporretatik bueltan, 1989ko irailaren lehen egunetan, trasteak automobil batean sartu eta Arrasate pasealekuko etxe berrira eraman genituen. Gela handi bat, bi gela txiki eta komuna genituen. Garai hartan Arrasate Press jende askoren ahotan zebilen. Kazetari asko etortzen

ziren aldizkariaren berri izatera. Beste herri batzuetatik ere, hainbat jende etorri zen, informazio bila. Haien artean, Beran etxea zuten *ttipi-ttapa* izeneko literatura aldizkari taldea. Arrasate Press ezagutu ondoren, *ttipi-ttapa* eskualde aldizkaria bilakatu zen.

Han ginela, MacII-ci ordenadore berria erosi genuen, maketatzeko. Pantaila handia zuen eta askoz ere ahalmentsuagoa hasierako txikiak baino. Lapurrek ere bisita egin ziguten. Goiz batean leihoak apurtuta eta argazki makina falta zitzaigula konturatu ginen. Ez genuen berreskuratu ahal izan.

Etxe hartan ginela hasi ginen Arrasate Telebista sortzeko lehen urratsak egiten. IMIk gela bat utzi zigun eta hantxe gordetzen genuen materiala eta egiten genituen bile-





**LOGOPEDIA
ZENTRUA
ARRASATE**

Logopedia eta psikologia tratamendu kliniko eta hezitzaileak haur eta helduentzako.

Erdiko kale, 37 - behea
Tel.: 79 79 46 • ARRASATE



Urterik gehienak Ospital Zaharrean igaro genituen, ATBren ondoan.

rak. ATBrentzako lekua behar zela eta, udalak ospital zaharra utzi zigun. Handik aurrera Arrasate Press eta ATB eskuetik helduta joango ziren.

Ospital zaharra, Azoka kalea, 1

(1990ko otsailaren 1etik 1997ko otsailaren 13ra)

Zazpi urte egin genituen ospital zaharreko goiko solairuan. ATBkoek Gurea zinetokira ematen zuen gela handi bat hartu zuten, monjen kapera izandakoa, eta hantxe antolatu zuten platoon, errealizazio gela eta editatzeko gela txikia. Arrasate Presse, berriz, bi gela hartu zituen: erredakzio gela eta zuzendariarena. Horrez gain, bilera gela ere izan genuen.

Leku polita zen, Arrasateren erdigunean, frantsiskotarren kalistroak gozatzeko aukera ematen zuena. Musikarik entzunena —San Joan bezperetan izan ezik, orduan danborraden entseuak edonor gortzeko modukoak izaten baitziren— usoen urrumak izaten ziren. Hala ere, leku hotza zen,

eta barruko pasabide eta geletan, iluna. Makina bat katarro harrapatuak gara hantxe.

Aireano usoak, baina lurrean saguak eta arratoiak izaten genituen bisitari. Hainbatentze Beñardok hainbat harrapagailu ipini behar izan zituen arratoiak harrapatzeko. Dena den, barrualdeko amairuren bet edo, bere tokitik aldatzen zen bakoitzean, arratoiak fijo agertzen ziren.

Bisita mordoa izan genuen ospital zaharrean Euskal Herriko eta kanpoko jende asko etorri zen bai telebista bai aldizkaria ezagutzera.

Teknologiari dagokionez, aldaketa handiak bizi izan genituen hantxe ginela. Alde batek, filmatzen hasi ginen. Horrek inprimatuaren kalitatea handitzea ekarri zuen. Aldus Page-Maker programa utzi eta QuarkXpress erabiltzeari ekin genion aldizkaria maketatzen. Ordenadore berriak erosi genituen eta denon ordenadoreak lotuko zituen sarea osatu genuen. Kolorea modujarraian hasi zen agertzen bai azaletan eta baita publizitatean ere.

1995ean Otalora kalera igaro behar ginenean, batzuek su eman zioten INEMen bulegoari eta, ondorioz, atzeratu



Gaur egun hementxe gaude, Otalora kalean.

behar izan genuen aldaketa bi urtez, udalak Otalora kaleko bulegoak utzi baitzizkion INEMi.

Otalora, 31

(1997ko otsailaren 13)

Azkenean, Otalora kalera etorri ginen. Honek ez zuen zerikusirik aurrekoekin.

Hona hemen orain urtebete nola deskribatu zuen Mainer Egues kazetariak etxe berria: "Otalora kaleko lokal berriak bi solairu ditu, bakoitza 220 metro karratukoa. Telebista beheko solairuan dago. Platoon azalera osoaren herena da, handia beraz. Goiko solairuan, berriz, Arrasate Presse, publizitatea eta gerentzia daude, eta irratia. Lokal zaharrean ez bezala, berriari gauza bakoitzarendako gela bat dago, hau da, erabiltzen ez diren dekoratuak ez dira platoon egongo orain; publi-

zistek euren bulego propioa izango dute eta baita gerentziak ere; harrera gela bat ere badago eta baita aldagela ere. Telebistako bideo zintendako artxibo egoki bat antolatu da eta ia eraikin osoan aire egokitua dagoenez, bideo zintak egoera onean mantendu daitezkeen baldintzak betezen dira".

Arrasate Irratiak badu leku bat. Datorren bitartean, Guepress (euskarazko herri aldizkariaren publizitatea kudeatzen duen elkarte) dago han.

Goiko solairuan gaude orain eta askotan igo eta jaitsi behar izaten ditugu eskilarrak, gutariko gehienok ATBn ere lan egiten dugulako. Eskilaren ondoan, gainera, kafe makina dugu, akabua. Egia esan, edonori inbidia emateko moduko etxea dugu gaur egun. Arrasateko Udalarari, AEDri eta Arkoren alde lan egin duzuen guztioi esker. Eskerrik asko.

Zenbaki adierazgarria

Beñardo Kortabarria

Betiko letxe, orain hiru bat aste enkargatutako lana azken azken orduan idazten. Hori izan da betiko nire estiloa: "Gaur egin daitekeena bihar egiterik baduzu, bihar egizu".

Hala ere, *Arrasate Press* zuzendu dudana azken hiru urteotan, niretako sakratua den araua mahaiaren kajoian gorde behar izan dut. Zer erremedio! Astean asteko astekariaren eta telebistako eguneroko albistegiaren martxarekin ezin bestela izan. Ez dut horrekin esan nahi aldizkaria zuzentzeko errobota izatea beharrezkoa denik, baina bai lana sistema baten sartzeak lagundu egiten duela. Eta sistemak bere garrantzia badu, oraindik eta garrantzitsua goa da lan-taldea. Eta une honetan aitortu behar dut nik neuk izugarritzko zortea izan nuela ARKOra iritsi eta aurkitu nuen jendearekin. Kanpotik datorren arrotzari begiratzen zaion bezala begiratzen ninduten hasieran, erreparoz. Hasierako hoztasuna, baina, laster epeldu zen eta lanerako benetan giro atseginean murgildu ginen: gogoz eta

harreman ezin-hobean. Hor egon naizen denboran zerbait egitea lortu badugu, ez dut batere zalantzarik lan-taldeari esker izan zela, denon artean sortu genuen giroari esker. Lankide izan ditudanei jendaurrean eskerrak emateko beharra sentitzen dut, uste dudalako horrelakoetan jendea bakarrik goikoen izenekin geratzen dela, benetan "lan zikina" egiten dutenak ahaztuta. Atzera begiratuta, eskerrak emateko beharrekina batera tristura ere sentitzen dut, ikusita hor bildu ginenok, kontratu-irizpide-arazoak medio, ez genuela elkarrekin lanean jarraitzerik izan. Eskerrak asko eta musutxuek denei, AED, Txatxili peña barne.

Atzera begiratzeari utzi eta aste honetan bertan 400. alea. Zenbaki bat besterik ez da, adierazten duena dagoeneko *Arrasate Press* 400 aldiz kaleratu dela eta aurten 10 urte betetzen direla lehenengoz argitaratu zenetik. Ez dakit irakurle zarenotatik zenbatek izango dituzuen orain arte argitaratutako ale denak etxean gordeta, baina denbora apurtxo bat hartzen baduzue eta hasierako

haiek begiratzen hasi, konturatuko zarete 400. alera ekarri gaituen bidea ez dela alperrik egin. Itzel aldatu da aldizkaria!, nahiz eta askotan pentsatu aste batekoa aurrekoaren bezalakoa dela. Etxean dudana mutikotxoarekin bezala gertatu da, egun batetik bestera ez diogu diferentziarik ikusten apenas, baina hasierako Aritz harekin gogoratu eta berehala konturatzen naiz zenbat aldatu den, poliki-poliki, baina eten barik. Orain artean, bost guraso izan ditu *Arrasate Press*ek: Joxe Aranzabal, Iñaki Mendiguren, Arantzazu Loidi, Maria Agirre eta ni neu. Umezain lana egin duten anai-arreba asko ere izan ditu, astero-astero janaria eman, garbiketa egin eta paseatu duten langileak. Senitartekoak ere etorri zaizkio bisitan behin baino gehiagotan: kolaboratzaileak, zuzendaritzakoak, AED... Eta kalean ikusita bakoitzean agurra egin dioten milaka herritar ere hor daude. Ume izatetik heldu izaten lagundu diote denek, eta denak ere beharrezko izango dira 10 urteko heldua denbora luze heldu izan dadin.



Hor egon naizen denboran zerbait egitea lortu badugu, ez dut batere zalantzarik lan-taldeari esker izan zela, denon artean sortu genuen giroari esker.

ESKIÑA
taberna


ZORIONAK ARRASATE PRESS!
Olarte, 25 • ARRASATE • Tel.: 79 20 20

ARROGOI
TABERNA


Zatoz gurekin, ez zara damutuko!

Zarugalde, 28 • ARRASATE • 79 06 40

Deba Garaian etorkizuna eraikitzen



HEZIBIDE




PARTAIDE
IKASTOLAK

Ez dizugu hutsik eainoa!



Irudiak



- 1 Kontu handiz errebelatzen zituen Joseba Vallesek gure argazkiak.
- 2 Ez zen Brasilen parekoa, baina taldeak harro eraman zuen izena.
- 3 Sobratzen ziren aleak, Ospital zaharreko lurrean sailkatuak.
- 4 Komunikabide handiak txikiaren berri ematen.

- 5 Ezin konta ahala talde, gazteak batik bat, etorri izan dira bisitan.
- 6 Punkyak kalistroetan egin zen arte erakusketa bat prestatzen.
- 7 1991n, Maritxu Kajol egunean, diseinu berria aurkeztu zen.




VENTANAS SAN MIGUEL LEIHOAK

Iturriotz, 24 ▪ Tel.: 79 78 10 ▪ ARRASATE
Ibargarai, 4 ▪ Tel.: 76 12 21 ▪ BERGARA
Rioja, 17 ▪ Tel.: (945) 25 88 92 ▪ GASTEIZ



**VENTANAS
SAN MIGUEL
LEIHOAK**

*Zure ongizatea
babesteko gaude*



902 202 502


SALMENTA OSTEKO ZERBITZUA (URTEBETE DOAN).

NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK.

EREDU ETA MOTA GUZTETAKOAK

AHOLKULARITZA TEKNIKOA ETA KONPROMEZURIK GABEKO AURREKONTUAK.

30 URTEKO ESPERIENTZIA ETA 100.000 BEZEROTIK GORA IZATEA DIRA GURE BERMEA.



BEREYA SAL

elektrizitatea

• ALARMAK. TB. SATELITEAK

• INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

• ANTENA KOLEKTIBOAK

• PROIEKTUAK ETA GARAPENAK

• SOINU INSTALAZIOAK

• TB ZERBITZU TEKNIKOA

• KONPONKETAK OROKORREAN

• ATEZAIN AUTOMATIKOAK

Erdiko kale, 50 • ARRASATE • Tel.: 79 13 79 / Mug.: 908 57 90 24 / Faxa: 77 15 34

Zorionak Arrasate Press
zure 400. zenbakian.

Akabo hotza

AKABO HOTZA kanpainak martxoaren 28ra arte iraungo du.



EROSKI

Erosten jakin



Nola erabiltzen da Arrasate Press?

Marian Porcel

Arrasate Press ez da bakarrik Arrasateko herritarren eskuetara iristen. Kanpora ere ailegatzen da. Komunikabide handiek informazio iturri gisa erabiltzen dute. Orrialde hauetan agertu diren asko eta asko, ondoren irratian edo telebistan azaldu dira. Euskaltegiek, berriz, euskara lantzeko erabiltzen dute gure aldizkaria.

Boulevard

Radio Euskadiko *Boulevard* informazio saioa audientzia handieneko ordutegian entzun daiteke. Almudena Cachok zuzentzen duen programa hau 70.000 entzulek segitzen dute astelehenetik ostiralera. Almudena eta bere laguntzaileek gaurkotasuna duten gertaeren berri ematen dute, baina guri interesatzen zaiguna ostegunetako saio berezia da. Goizeko 08:30eta-

tik 09:30ak arte, herri aldizkarietan jasotako berrien laburpena egiten du Oscar Perezek. Horien artean *Arrasate Press* en agertutako zenbait berriren aipamena ere egiten da. Oskar Perezek esan digunez "*Arrasate Press* beti erabiltzen dugun aldizkaria da, baina interes orokorreko gaiak bakarrik hartzen ditugu gure entzuleak Euskal Herri osokoak direlako. Noizean behin, herriari buruzko datu deigarriak agertzen badira, aipatzen ditu-

gu. Adibidez, *Arrasate Press* 400. zenbakia kaleratzea oso interesgarria da. Herri aldizkariaren aitzindariak horrelako marka egitea entzule askoren interesa pizleazake. Programan aipatuko dugu, seguru."

Almudena Cachok, herri aldizkariari egiten zaien tartearen garrantzia azpimarratu du: "gure entzule asko erdaldunak dira eta ez dute euskal prentsa irakurtzen. Saioaren bidez, euskaldunen eta erdaldunen



LORAMENDIN

Denboraldi bukaerarako

ESKI ESKAINTZAK!

- Eskiak+Fijazioak+Makilak 16.900 pta.tik hasita.
- Botak 5.000 pta.tik hasita
- Beherapenak mendi eskietan

ZATOZ!

Berri gehiago San Andresen • 79 97 24


esparruak hurbiltzea da gure helburua”.

Bertatik Bertara

Estepan Aldamiz, ETB 1eko saio honen zuzendariak dioen bezala “bat-batekotasunerako eremu zabala duen saioa da Bertatik Bertara”. Erreportariak mota guztietako berriak lantzen dituzte eta Andoni Aizpuru pertsonaje xeble bat baino gehiago elkarrizketatu izan du. “Ezagutu ezin ditugun pertsonajeak bilatzen ditugu herri aldizkarietan—esaten du Estepan Aldamiz-ek—guretzat zaila da eta herrietara hurbiltzea”.

Normalean, bere herrian ezagunak diren lagunak edo lan bereziren bat egin dutenak agertu dira programan. Arrasateetik Jon Andueza eta Kepa Uribarren izan dira programan eta herriko jendea ere agertu da kaleko inkestetan. Bertatik Bertara saioan Arrasatearekin lotura duten bi profesional ari dira lanean: Saioa Ojanguren mondragoetarra eta Elene Alberdi, ATBko Munduari Buel-taka saioaren aurkezlea.

Arrasate Press irakurtzea, “lupa bat jartzea bezala da—



Bertatik Bertara saiokoek, Arrasate Pressen agertutako zenbait arrasatear eraman dituzte platora.

esan du Estepanek—ezezagunak zaizkigun istorioak eta pertsonak gerturatzen dizkigun lupa”.

Goizean Behin

Euskadi Irratian goizero entzuten da Jaime Otamendiren ahotsa. Berak zuzentzen duen irratsaioa, tertuliak, albistegiak eta elkarrizkak osatua da. Programa prestatzeko, egunkariak irakurtzeaz gain, herri aldizkariak ere erabiltzen dituzte. “Arrasate Press berandu heltzen zaigu — azaldu digu

Jaime Otamendik—, baina horrek ez du garrantzirik, interesatzen zaiguna aldizkarian irtetzen diren pertsonak direlako”.

Arrasate Pressen irten diren hainbat lagun joan dira Goizean Behin programara. “Disziplina desberdinetan adituak diren pertsonekin harremanetan jartzea interesatzen zaigu. Aldizkarian agertu diren sexologoak, modeloak, edo beste lanbide bat duten lagunak programara ekarri izan ditugu”. Herri aldizkariak egiten duten lana oso garrantzitsua da Jaime Otamendiren

tzat “batez ere herrirako eta, nola ez, hizkuntzaren alde”.

Aire-Aire

Azken boladan harreman estua izan du Aire-Airek, ETB 1eko magazinak, Arrasate Pressekin. Orain dela aste batzuk, Muxibar baserriko pinudian aurkitutako obusaren argazkia ikusi eta gurekin jarri ziren harremanetan. “Gerra garaian galdutako munizio guztiaren inguruko erreportajea egin nahi genuen, baina ez genuen materialik aurkitzen. Ertzaintzari ere

Fruita eta barazki freskoak

Zerbitzu
ezin hobea!
Tratu atsegina

Enkarguak
etxera
eramaten
ditugu



Etxetik gertu eta
aparkalekua
kalekoentzat.

Zabaldu
berria!

Aranbarri Maisua, 2 behea • ARRASATE • Tel.: 929 45 92 33

informazioa eskatu genion, baina emaitzarik gabe. Arrasate Pressen obusaren argazkia ikusi arte" kontatu du Jon Lamarkak, Aire-Aireko zuzendarietako batek. Joan den asteko programa ikusi zenuenok, Joxe Bixente Etxaberi egindako elkarrizketa eta obusa ikusiko zenuten. Erreportajearen agertutako irudi batzuk ATBk utzitakoak ziren.

Beste behin, Juanito Arzamendiri egindako erreportajea ikusita, Aire-Aireko zuzendariak Juanitori programako makila ematea erabaki zuten. "Oso hunkigarria izan zen. Arrasateko Banda eta guzti egin genion omenaldia eta Juanitok sekulako sorpresa hartu zuen" gogoratzen du Jon Lamarkak. Programa oraindik ez da eman, futbola dela eta ez dela, saioak atzeratu egin direlako.

Jon Lamarkak esan duenez, Arrasate Press eta beste herri aldizkariak eskura duten informazio iturriak dira berentzat.



Goiko argazkian Boulevard saiko esatariak. Ostegunetan herri aldizkarietarte bat egiten diete programan. Behean, Aire aireko aurkezleak. ETBko saioan aldizkariaren agertutako zenbait pertsona eta gai eraman dira.

herriko euskaltegietan. Inkesta, elkarrizketak, erreporta-

jeak, publikatzea..., edozein gai erabiltzen da euskara

jorratzeko. Nerea Maiztegi udal euskaltegiko zuzendariak, aldizkariaren atalak urratsen arabera erabiltzen direla esan digu. "Inkesta, agenda, publizitatea eta azoka plaza, beheko urratsetan erabiltzen ditugu. Azoka plazarekin rol jokoak asmatu eta publizitatearekin hiztegia lantzen dugu. Erdiko mailetan adibidez, 30 galdera eredutzat hartzen dugu antzeko elkarrizketak egiteko. Goiko urratsetan, Aurrez aurre, iritzi artikulua eta erreportajea lantzen ditugu".

Erdu AEKko ikasleek aldizkaria erabiltzeaz gain, parte ere hartu izan dute inkesta egiten. "Oso esperientzia baliagarria izan zen. Arrasateko euskarara hurbiltzen ziren, eurek ikasitakoa kale-ratzen zuten eta azkenik, euren lana argitaratuta ikusteak izugarri motibatzen zituen" azaldu du Leire Bergara, AEKko irakasleak.

Arrasate Press oso erabilgarria da, AEKko irakaslearen esanetan, gaiak hurbilak direlako, ikasleen arteko eztabaida pizteko balio delako eta poliki-poliki aldizkaria erabiltzen dutenek euskal prentsa irakurtzeko ohitura hartzen dutelako.

Arrasateko Euskaltegiak

Arrasate Press euskara irakasteko tresna bihurtu da

BAKAILO ETXEA



- Bakailaoa eta beroni buruzko produktuk
- ISLANDIAko bakailaoan espezializatua
- Bakailaoa kazoletak prestatzen dira (bakailaoa gatzgabetua daukagu)

Mondragonés kalea, 7 (Azoka Plaza onduan) • Tel. 79 93 07



ERAIKUNTZAK ETA INDUSKETAK

Basabe Poligonoa 4, EQ- 11 • ARETXABAETA
Tel/fax. 79 01 51 • Mugikorra (908) 77 28 67 • Partikularra 79 74 26

OKORETEGI

KAFETEGIA

Juan Carlos Guerra, 5 behea • ARRASATE • Tel.: 77 03 62

OSO DENBORA LABURREAN

Iritziak

Arrasate Pressek beste muga bat gainditu du. Hori dela eta, aldizkariaren jarraipena hurbiletik egin duten hainbat lagunen iritziak jaso ditugu. Denei 400 karakter idazteko eskatu diegu (ordenadoreak karakterretan neurtzen ditu artikulua: tekla duari ematen zaion takateko bakoitza, berdin da letra edo hutsunea bada, karakter bat da). Hauek dituzue iritziak.

Akrazia apurtxo bat ...

Jesus Garmendia, Eskoriatzako Irakasle Eskolako zuzendaria

Arrasate Press ia hasieratik izan zen produktu borobila, anezkerrepika daitezkeen hainbat pertsona eta asmo elkar osagarriren uztarketak eragindakoa, eta gero hainbat kumez erdituko zen sabel betearen borobiltasunaz. Artista on askok sartu du hor eskua geroztik ere. Produktu borobila, esaten nuenez, denek aitortzen dutenez.

Eskertuko genuke, agian, borobiltasun perfektu horren baitan, zorrotasun apurtxo bat gehiago; hainbat mezu orekaturen artean, akrazia apurtxo bat, agian...

Oraindik beharrezkoa

Jose Mari Loiti, Arrasateko alkatea

Euskara irakasteko, argi daukat Arrasate Press euskaraz bakarrik izan behar dela. Arrasateko Udalak lagunduko dio orain arte bezala. Hala ere, hamar-hamabost urte barru Arrasate Press eta ATB ez dira beharrezkoak izango jendeari euskara irakasteko, belaunaldi berriak euskaldunak izango direlako. Orduan beste premia batzuk izango ditugu eta Arkok enpresa moduan egin beharko du lan.

Betidanik balego bezala

Joxe Manuel Irigoien, *Ttipi-ttapa* aldizkariako zuzendaria

Denboraren gupilak ez du etenik. Urtea joan eta urtea etorri, oraingo honetan Arrasate Pressen bilduma luzeak 400. zenbakia karrikaratu du. Eta bistan da! Hasieran bati baino gehiagori arraroa idurituko zitzaiona laster arrunta bihurtuko zitzaion, eta denbora igaro ahala, betidanik hor zegoela pentsatuko. Imaginatzen duzue biharko Arrasate Arrasate Pressik gabe?

Atera kontuak

Jasone Mendizabal, AEDko eragilea

Hamar urte bete baino lehen, 400. zenbakia etorri zaigu. Urteko 44 zenbaki eta bakoitzeko 6.300 ale herriko postontzietan. 534 dendak eta enpresak iragartzeko erabilia. Laguntzaileak ehundaka eta irakurleak 20.000tik gora. Batez beste, irakurle bakoitzak 20 minutuz irakurtzen du Arrasate Press. 400 zenbakik zenbat minutuz eragin dute euskarazko irakurketa zuzpertzeko? Milioika minutu ateratzen zaizkit; kalkulagailua zorabiatu egin zait. Gogoz bazabiltza, atera kontuak.

400 zorion!

Koldo Rodriguez, ATBko aurkezle ohia

Garai batean Arrasate Telebistari buruz idatzi behar izaten nuen orriotan. Sekulako errespetua izaten nion artikulua egite hari, eta larri-larri ere sentitu nintzen behin edo beste, zer idatzi ez nekiela eta. Jainkoari esker, ez da gaurko kasua. Poz-pozik idazten ditut lerro hauek, bere laburrean omenaldi beroa izan nahi dutenak. 400 zenbaki, hamar urte... nireak moduko hainbeste larritasun, hitz-erdi eta gogoz egindako 14.000 orrialdeak, euskaldunontzako eredu eta adore. Zorionak, Arrasate Press!

ETXERAT TABERNA

EUSKAL PRESOKAK EUSKAL HERRIRA!

ZURGIN KANTOI, 5
TEL.: 79 20 52
ARRASATE



ZELAIA

1.970 - 1.998



Igeltzaritza



Iturgintza, Gas eta Berogailua



Elektrizitatea eta Elektronika



Zurgintza-muntaiak



Poliuretanozko eta PVCzko leihoak

**OBRA INTEGRALAK EGITEN DITUGU
OSO DENBORA LABURREAN**



Beharrezko arnasa

Juanito Leibar

Nire liburutegian liburu bat oso berezia ageri da, ondo tolestatuta: *Arrasate Presse* argitaratu zituen lehenengo hamahiru zenbakiak biltzen ditu. Baina gero, benetan miragarria, 400 zenbaki argitaratu ditu eten gabe! Bultzada mamitsua Arrasateko euskararentzat.

Joxe, segi aurrera, aspertu gabe, jo eta ke! Aldizkari honen arnasa benetan beharrezkoa eta paregabekoa da gure euskara maitearentzat. Zuri eta *Arrasate Pres* zorianak eta urte askotarako.

Gero eta hobe

Josu Otadui, jubilatua

A*rrasate Presse* argitaratu dituen ale guztiak gordetzen ditut etxean. Errepasoa eginez, ikusten dut oraingoa hobeto maketatuta dagoela eta paper hobean datorrela. Argazkiak ere hobeak dira, informazioa zabalagoa. Beraz, aldizkari polita eta egokia da Arrasaterako. Ale guztiak goitik behera irakurtzen ditut.

Hurbiltasuna, bizitasuna

Jesus Larrañaga

A*rrasate Press* aitzindari izan da herri aldizkariaren artean eta urte hauetan xalotasunez eta nekerik gabe eutsi dio herritarren informazio beharretan lan egiteko deiarri. Hurbiltasunaren bizitasunaz eta berritasunaren jakinminaz bete ditu bere orrialdeak. Bere orrialdeak irekita egon dira beren bizipenak eta sentimenduak jakinarazteko erabili nahi izan dituzten guztientzat. Atzealdean belaunaldien arteko oroimenak eta joandako sasoiaren oroitzapen mina ekarri dizkiguten argazkiak eraman ditu.

10 urte, gezurra dirudi!

Hartz Azkarraga

Gezurra ematen du hamar urte pasatu direla *Arrasate Press* lehenengoz kaleratu zenetik. Ordutik aurrera, astero-astero eta fin-fin gure postontzietan jaso izan ditugu Arrasateko berriak, txutxumtxuak eta abarrekoak.

Horrelaxe pasatu da, behintzat, Zaldibarko Futbito Txapelketa rekin, hortxe egon baitzarete txapelketa hasi zenetik emaitzak, sailkapenak eta hurrengoko partiduak ateratzen. Gure partetik, eskerrik asko. Segi ezazue horrela beste hamar bider hamar urte mondragoetarrei informazioa zabaltzen eta herriaren alde lana egiten.

Orain ere eredu da

Luis Fernandez, Arrasate Presseko kazetari ohia

Lehena bazara zerbaitetan, normala da eredu ere izatea, jarraian datozenak zugar inspiratuko direlako. Normala da pentsatzea, halaber, ereduaren ispilu gisa sortu direnek, nor bere bidea harturik, eredu propioak garatuko dituztela denborarekin, lehenbizi sortu zen hari horrenbeste begiratu gabe. Eta hala ere, 400 kolperen buruan, oraindik *Presse*ko ispiluan begiratzen dira asko. Orain ere eredu da eta.

Famauen ahotik

Jesus Mari Garai eta Estepan Plazaola

Zelakue ete zan kotxiek bai baiñe automobilik ez auen denporako Mondraue? Zelakuek ete zien bizikletak erdiegurrezkuak zien denporetako karrerak? Zelan kapetan ete die katuek eta oillaskuek...?

Guk *Famauen Ahotik* zuzenien jakin gauen, *Arrasate Pres* esker. Etzan nekeik bakue izen baiñe bai pozgarrixe. Ordutik hona gure famauetako batzuk juen ein jaku, eta aldien eruen doskue euren istorixo majikuek. Berba apurrok, euren gomutaz. Eta Arkori, urte askotarako.

Publizitatea euskaraz

Kaitin Allende, ARKOkoko publizista

A*rrasate Press* 400. zenbakira iritsi da. Inguruko iragarleak ere denon ahotan dabilta aldizkariari esker. Merkaturan 63.075 marka badaude, ahalegin berezia egin beharra dago bakoitzarena nabarmentzeko. Horregatik, *Arrasate Presse*ko publizitatea desberdina da: euskaraz pentsatua eta egindakoa. Horretara iristeko ezinbestekoa izan dugu bezeroen elkarlana. Datozen lauhunak GunePresekin etorriko dira.

BOLIÑETE
OILASKO ERRETEGIA

Bertan jateko edo eramateko.


Zarugalde, 24 • ARRASATE • Tel.: 79 39 91



**Era guztietako
gaiak
ileapaindegietarako**

Kontzeziño, 4 behea
ARRASATE
Tel.: 79 78 09

FIAT

Alfa Romeo 



Alfa Romeo 156, European 1998. URTEKO AUTOA!



**ADI,
BESTE
TOKI
BATEAN
GAUDE!**



Fiat Palio Weekend

KANPAZAR

ERAKUSKETA : Araba Etorbidea, 32 • ARRASATE

Tel: 79 77 66 • Faxes: 77 12 84

Nazioarteko aipamena Arrasate Pressen diseinuari

Itxaro Zubillaga

Laurehun zenbakira iritsi garenean, ezin dugu aipatu barik utzi iaz *Arrasate Pressen* diseinuak jasozuen saria. SND (*Society of News Design*) elkar-teen aldizkariak, *Design* izena duenak, Munduko Egunkari Txiki Onenen artean aukeratu zuten Arrasate Press. Egunkari eta aldizkariaren diseinuko *Oscaren* antzekoak dira aipamen hauek.

SNDk (Informazioaren Diseinurako Elkartek) mundu zabal-eko egunkarietan eta aldizkarietan lan egiten duten profesionalak biltzen ditu. Bere eginkizuna da informazioaren diseinua aztertzea eta hobetzea. Horretarako lan asko egiten du: mintegiak, ikastaroak eta biltzarrak antolatuz, aldizkari bat eta berripaper bat argitaratuz, Interneten bidezko kontultak bideratuz, etab. Horiekin batera, urtean behin, SND sariak banatzen ditu.

Sari horietan diseinua, maketazioa, argazkiak, tipo-

grafia, kolorearen erabilera eta bestelako elementuak hartzen dira kontuan. Normalean 30.000 aleatik gora kaleratzen dituzten egunkari eta aldizkariaren artean banatzen dira.

Iaz, berriz, *Design* aldizkariak aldizkari eta egunkari txikiak hartu zituen kontuan. Mundu guztitik bidalitako aleen artean, zazpi hautatu zituzten: bost egunkari eta aldizkari bi. Tartean *Arrasate Press*.

Baina, nola gertatu ziren gauzak? Goio Arana, *Arrasate Presseko* diseinu arduraduna SNDko kidea da eta elkarteak bidalitako agerkariak jasotzen ditu. Irakurri zuenean *Design* aldizkariak aldizkari txikiak saritzeko asmotan zebilela, birdiseinatutako *Arrasate Presseko* ale batzuk bidaltzea erabaki zuen. Aurretik Indiannapolis hirian (EEBB) egona zen SNDren kongresuan. Hantxe ale batzuk aurkeztu zituen, SNDko profesionalak kritika egin diezaieten. Handik bueltan, ikututxo batzuk egin diseinuari eta aleak bida-



li zituen lehiaketara. Hori guztia *Arrasate Presseko* inork ezer jakin barik.

Erredakzioan iazko irailean jakin izan zuten dena, *Design* aldizkariak aipameneri berri eman zuenean. Denek,

esan beharrik ere ez dago, pozik bai pozik hartu zuten berria. Ez zen gutxiagorako. Hura *Oscar* bat zen, aldizkari honen diseinuari emandako *Oscarra*. Zorionak, Goio! Urte askotarako *Arrasate Press!*

**Plus Ultra
taberna**

Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tel. 79 20 57

**TXOKO
TABERNA**

*Cure berezitasunak pintxo eta
mokau gozoak*

**ZUK NAHI
Taberna**

**Pintxo goxoak
giro onenean!**

Erdiko kale ARRASATE
Tel.: 79 79 26

Kabía

A
L
T
Z
A
R
i
A
K



A
P
A
I
N
K
E
T
A

Konfiantza osoz.

Gipuzkoa Etorbidea, 28 • ARRASATE • Tel.: 79 27 70

Bihotzak
gida zaitzala.



Berria
Opel
Corsa

zure bizitzako motore

Zure bizitzako motore martxan jarri da.
Motore belaunaldi berri bat. Potentzia gehiagoz. Kontsumo gutxiagoz.
Eta txasis berri bat. Gehiago gozatzeko. Segurtasun handiagoz.

Jarriozu motore berri bat zure bizitzari, eta eraman zaitzala

OPEL 
ALEMANIAR INJENERUTZA ZURE ERABERERAK

TALLERES OLA

Olabarrena auzoa, z/g. Tel.: 76 33 44 / 45 / 46 / 47. BERGARA.

Zerbitzu ofiziala ARRASATEN

TAKOLO AUTOAK, S.L.

Araba Etorbidea, 3. (Escatu pabilioia). Tel.: 79 05 86

OPEL KONTSEZIONARIO OFIZIALAK, HOBEAK.